

Demokrazia erradikala Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduan

Pello Zabarte Narbaiza

Soziologian graduatua eta Historia Garaikideko Masterrean ikaslea

Demokrazia erradikalaren paradigma garrantzitsuenetakoa da gaur egungo mugimendu eraldatzaileen artean, batik bat, goranzko joera duten Europako mugimendu nazionalisten artean. Demokrazia diskurtso nazionalistaren erdigunean jartzeak nazionalismoen artean erroko aldaketak sorrarazi ditu. Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua da Euskal Herrian fenomeno horren adibide garbia: nazio-legitimitatean oinarritutako diskurtsotik legitimitate demokratikoan oinarritutako diskurtsora, hiztegi marxista eta autodeterminazio-eskubidetik erradikalizatzeko demokratikoa eta erabakitze eskubidea ardatz izatera, negoziazio-estrategiatik prozesu bidezko estrategia populistara eta abar. Halere, nazioa eta klaseen auzia baztertu gabe, nolabaiteko tentsioan mugitzen da gaur egun ENAM, sintesi ideologiko historikoa, abertzaletasunaren eta marxismoaren artekoa, demokrazia erradikalarekin uztartuz.

GAKO-HITZAK: Demokrazia erradikala · Nazionalismoa · Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua · Erabakitze eskubidea.

Radical Democracy in the Basque National Liberation Movement

The paradigm of radical democracy is one of the most important revolutionary movements, mainly, given the rise of European nationalist movements. The fact of placing democracy among the nationalist discourse has caused deep changes within nationalism. The Basque National Liberation Movement (i.e. ENAM) is a clear example of this phenomenon in the Basque Country. From the discourse based on national legitimacy to the discourse based on democratic legitimacy; from Marxist terminology and the right of self-determination to having radical democracy and the right to decide as a core idea, from negotiation strategy to populist strategy through process, etc. Nevertheless, without putting aside the nation and class conflict, nowadays, ENAM is in an ambivalent position between ideological historical summary, nationalism and Marxism, and the radical democracy.

KEY WORDS: Radical Democracy · Nationalism · Basque National Liberation Movement · Self-Determination.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.114.2020.5>

Jasotze data: 2019-12-30

Onartze data: 2020-02-05

1. Sarrera

Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua (ENAM) 1960ko hamarkadan sortu eta gaur arte bizi den mugimendu politikoa da. ETaren V. Biltzarrean finkatu zuen tesi politiko nagusia, borroka soziala eta nazionala uztartuz (Etxebarria, 2018; Apaolaza, 2012). Pentsamendu politiko berri eta propioa garatuz, ordura arte Euzko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) abertzaletasunean zuen hegemonia hautsi zuen, gaur-gaurkoz abertzaletasunaren barruan dauden bi familia nagusietako bati sorrera emanez, eta abertzaletasun esentzialistarekin hautsiz (Apaolaza, 2010; Ansa, 2018). ENAMek berak aldaketa handiak izan dituela ere kontuan hartuta, Sortu alderdia erreferentzia politiko nagusizat hartzen duen eremu politikoa hartuko dugu aztergaitzat. Sortu alderdiak bere burua Ezker Abertzaleko bilgune eta erreferentzia politiko nagusizat du eta (Sortu, 2016a: 11).

Azken hamarkadetan indarra hartu duen demokrazia erradikalaren paradigma politikoak —hau izan baitaiteke funtsean XXI. mendeko euskal abertzaletasunean eta ENAMen pentsamendu politikoan aldaketa nagusia (Azurmendi, 2017; Goikoetxea, 2017)— ENAMen izan duen eragina aztertuko dugu. Demokrazia erradikala ENAMek nola bereganatu duen, eta horren pentsamendu politikoan sortu dituen aldaketa nagusiak aztertuko dira ikerlan honetan.

Ikusiko dugunez, subiranotasunaren eta demokratizazioaren aldeko mugimenduak dira gaur egun mugimendu askatzaile garrantzitsuenetakoak. Horien artean mugimendu adierazgarrienak estatu gabeko nazioen baitan garatu dira: besteak beste Eskozian, Katalunian, Hong Kongen eta Euskal Herrian.

Demokratizazioaren eta erradikalizatzeko demokratikoaren aldeko mugimendu hauek nazio-askapenerako eta independentziaren aldeko mugimenduekin bat egiten dute, eta nazionalismo klasikoetan aldaketa handiak sorrarazi. Horrela, Euskal Herriko hainbat ikerlarik ildo honetako gaiak jorratu dituzte azken urteetan (Zubiaga, 2017; Goikoetxea, 2017; Mateos eta Zabalo 2009; Zabalo eta Odriozola 2017; Azurmendi, 2017...). Gainera, eztabaida politiko eta sozialean ere presentzia dute gai hauek, eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) autogobernu-ponentziaren eztabaidan ikus daitekeen moduan, errotze demokratikoari loturiko gaiak berebiziko garrantzia dute.

Euskal Herrian ENAM edo Ezker Abertzalea izan da demokrazia erradikalaren aldeko apustu garbia egin duen mugimendu politikoa. Era horretan, bi familia politiko abertzale nagusietako baten oinarri ideologiko zein planteamendu politikoan aldaketa nabarmenak eraginez. Ikerketa honen bidez, batetik, begirada historikoa erabiliz aipatutako aldaketak ulertzeko aukera izango dugu, eta, bestetik, gaur egungo Euskal Herriko ezkerreko nazionalismoaren paradigmatik ulertzeko gako gaurkotuak eskainiko ditugu.

2. Helburuak

1. ENAMen baitako pentsamendu politikoan azken urteetako aldaketa garrantzitsuena demokrazia erradikalaren gizarte-eraldaketarako paradigma bere egitea dela abiapuntutzat dugu. Hori horrela, demokrazia erradikalak ENAMen izan duen bilakaera aztertzea xede nagusia da: une historiko bakoitzean izan duen presentzia, eta bereziki, gaur-gaurkoz duen eragina.
2. Demokrazia erradikalaren barnerapenak ENAMen pentsamendu politikoan sortu dituen aldaketen azterketa egitea: besteak beste, naziotasun-identitatearen eta nazioaren auzian eta sintesi politiko orokorrean.

3. Hipotesiak

Esan bezala, demokrazia erradikala da gaur egun Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduak ardatz nagusitzat hartu duen gizarte-eraldaketarako paradigma politikoak. Prozesu horrek demokrazia erradikala ENAMen helburu estrategiko zein estrategia politikoaren erdigunera ekarri du. Hortaz, ENAMek 1980ko hamarkadatik aurrera estrategia demokratizatzailea garatu duela hartuko dugu abiapuntutzat, eta bereziki, azken urteetan eman ditu estrategia horren pauso adierazgarrienak.

Prozesu horrek ENAMen pentsamenduan naziotasunak eta identitateak izan duen papera eraldatu du. Horrela, nazioaren, naziotasunaren eta nazionalismoaren posizioak aldatu egin dira ENAMen pentsamendu politikoan, eta baita hizkuntzaren, autodeterminazio-eskubidearen edo subjektuaren inguruko auziak ere. Alta, horiek ez dira desagertu, eta garrantzitsuak izaten jarraitzen dute. Nazioa eta abertzaletasuna duela gutxira arte ardatz nagusi zirenak; erdigunetik kanpora mugiarazi dira, baina mantenduz nolabaiteko anibalentzia eta tentsio batean.

Nazio-askapenerako prozesuen erdigunean daude gaur egun demokrazia erradikala eta erradikalizatzeko demokratikoa. ENAMek beste hainbatetan egin duen bezalaxe, nazioartean lehen lerroan dauden korrante askatzaileetatik edan du, bere askapen-prozesua garatzeko eta sasoiari sasoi nazio-askapenerako eta independentziarako estrategia eraginkorrena garatzeko xedez.

Aurreko ideien bidez, ENAMek gaur egun demokrazia erradikalarekin duen harremana garatu du, erradikalizatzeko demokratikoaren aldeko hautua estrategia politikoan zein eremu ideologikoan txertatuz. Hala ere, nazioari, abertzaletasunari eta ENAMen tradizioa osatu duten beste paradigma batzuei —klaseen auziari, marxismoari...— ez die muzin egiten, eta horien arteko sintesia eta uztargarritasuna bultzatzen du.

Honela laburbildu daitezke hipotesiak:

1. Demokrazia erradikalaren paradigma da gaur egungo ENAMen berrikuntza ideologiko nagusia, eta garapen historiko zehatz baten ondorioa da.
 - 1.1. Nazioarteko testuinguruak eta nazioarteko mugimendu eraldatzaile eta independentisten arteko joerek eragina dute prozesu honetan.
2. Demokrazia erradikala erdigunean jartzeak aldaketak sortu ditu ENAMen pentsamendu politiko historikoan.
 - 2.1. Nazioa eta naziotik eratorritako abertzaletasun-eredua posizioz desplazatuz.
 - 2.2. Abertzaletasun iraultzaile gisa ezagutu den sintesi politikoa eraldatuz.

4. Ikerketa-diseinua

Ikerketa egiteko, une historiko zehatz batzuen azterketa garatuko da, eta une horietako ENAMen antolakunde nagusi ziren edo diren eragileen txostenak aztertuko dira. Testu-azterketa egoki garatzeko xedez, eta testuak modu zuzenean behatzeko, aurretiaz marko historiko, teoriko eta kontzeptuala zehaztuko da, zeren formula hori mugimendu politiko baten pentsamendu politikoa ulertzeko modurik zehatz eta objektiboena baita. Hala ere, ENAMen mugimendu-izaera dela-eta, kontu handiz garatu da zuzendaritza edo antolakunde nagusiaren ildo politikoa mugimendu osora zabaltzearen ariketa. Hurrenez hurren, erabiliko ditugun txostenen kokapena:

- 1980ko hamarkada, HASI alderdiaren II. Biltzarra (1983): Demokrazia erradikalaren paradigma barneratu aurreko garaia.
- 1990eko hamarkada, Herri Batasunaren Urrats Berri prozesua (1991): prozesuaren hastapenak, demokraziaren garrantzia lehen lerroan jarritz.
- 2010eko hamarkadaren hasiera, Sorturen eratze-prozesua (2012): estrategia soilik politiko eta demokratikora aldaketa.
- Gaur egungo fasea, Abian prozesua eta Sorturen birfundazio-prozesua (2015-2016): aldebakartasuna eta demokrazia erradikalaren inplementazioa.

Lehenago esan bezala, aztergai dugun prozesuaren lau une historiko determinante aztertuko dira: 1980ko hamarkada, 1990eko hamarkada, 2010eko hamarkadaren hasiera eta gaur egungo fase historikoa. Ikus daitekeenez, 2000ko hamarkada azterketatik kanpo utzi da. Aztertzen den prozesuan adierazgarritasun txikiena du eta, horrela, ENAMek demokrazia erradikalaren paradigma politikora egin duen hurbilpenaren lau une determinanteak aztertuko dira.

5. Marko historiko eta teorikoa eta kontzeptualizazioa

Testu-azterketen ulerpena bermatzeko xedea duen atal hau hiru eremu nagusitan bereiziko dugu: batetik, euskal abertzaletasuna eta ENAM; bigarrenik, demokrazia erradikala, eta, hirugarrenik, ENAMen demokrazia erradikalak aldarazi dituen kontzeptuak.

1. ATALA: ENAM definitu eta aztertuko da, euskal abertzaletasunaren barruan mahaigaineratu dituzten berrikuntza teorikoak aztertuz.
2. ATALA: demokratizazioaz eta demokrazia erradikalaz jardungo dugu, autore nagusien eskutik demokrazia erradikala zer den ulertzeko. Era berean, pentsamendu politiko hau aditzeko ezinbestekoak diren neoliberalismoaren eta demokraziaren pribatizazioaren gako nagusiak ere azalduko dira alde aurretik. Gainera, gaur egun estatuko eta Euskal Herriko hainbat autore ere baliatuko dira, gertutasun kronologiko zein kultural eta politikoak argiago erakutsiko baitugu paradigma askatzaile honen funtsa.
3. ATALA: aurrez aztertutako guztiak ENAMen pentsamendu politikoan eragin dituen aldaketen inguruan jardungo dugu. Batetik, nazio kontzeptuaren zein nazionalismoaren inguruan labur hausnartuko dugu, horien lausotzea eta desplazamendua gertatu baita. Bigarrenik, aztertutako fenomenoaren adierazgarri nagusietako izan daitekeen ezaugarria aztertuko dugu: erabakitze eskubidea, autodeterminazio-eskubideari presentzia kendu diona.

5.1. Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua

1958. urtean, Euskadi Ta Askatasuna (ETA) antolakundea sortu zen, EKIN antolakundetik, urte batzuk lehenago EAJko gazteetatik bereizi zen gazte talde batetik hain zuzen ere. Garai horretan ezker iraultzaileak erreferentzia ugari zituen; testuinguru sozial, politiko, kultural eta intelektual nahasi bezain aberatsean: SESBeko literatura guztia, Mao, Aljeriako FLNren borroka anticoloniala (Fanon), IRA, Brigada Gorriak, Frantziako 68ko Maiatza eta Pragako Udaberria... Eta erreferentzia intelektual aberatsak: André Groz, Camus, Sartre, Che Guevara... (Olariaga, 2018a: 10).

Testuinguru bizi horrek garapen ideologiko handi eta azkarra izatera eraman zuen erakunde abertzalea. Odriozolak (2016) *Personalidad nacional y patriotismo* izeneko ETAREN koadernoaz aztertzen du, 1960-1961 urteetako dokumentua. Bertan, erakunde sortu berriak «ikuspegi pertsonalista hartzen du gidari», «personak berez duen kategoria handiagoa da ETAREN ustez nazioarena baino». Ondoren, Apalategi (1985) aipatuz, erakunde abertzaleak pertsonaren eskubideak nazioaren eskubideen gainetik jartzen dituela azaltzen du. Honenbestez, kutsu filosofiko existentzialistaren baitan koka daiteke ETA. Nazio-nortasuna «nazio arimarekin lotzen du eta nazioaren faktore bereizgarrietan arraza, hizkuntza eta erakundeak aipatzen ditu». EAJren abertzaletasunetik urruntzen zebilen arren, naziotasun esentzialista zen orduan ETARENA, arima eta arrazaren gisako kontzeptuek erakusten duten bezalaxe.

Nazioarteari ere asko erreparatu zion ETA sortu berriak. Ikusi dugun lez, ezker iraultzailearen barruan erreferentzia ugariak ziren, eta horietatik irakaspenak atera nahi izan zituen. Eredu honetan garrantzitsua da ulertzea sekula ez zuela eredu zehatz bat hautatu eta jarraitu. Baina, mundu osoan garatutako sasoiko nazio-askapenerako esperientzia iraultzaile orotara adi egon zen (Apalategi, 1985: 227).

Hasierako eztabaida bizien jarraipen eta ondorioa izan zen ETAREN V. Asanblada, heldutasun politikoa lortu zuen unea. Apaolazak (2010) azaltzen duenez, V. Asanbladatik aurrera tradizionalki euskal abertzaletasuna lagundu duen lerro esentzialista alboratu zuen ETAK. Mugarri horretan, abertzaletasun iraultzailearen teoria politikoa formulatu zuen, Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren sorrera ekarriko duena (Olariaga, 2018a: 12). ETAREN V. Asanblada gerra osteko abertzaletasunaren gertakizun nagusia da Olariagaren (2018a: 11) arabera.

V. Asanbladan marxismoaren eta euskal abertzaletasunaren arteko sintesia planteatu zuen ETAK: lehenengoa izanik Euskal Herrian, 1960ko hamarkadaren inguruan, herriensubiranotasuna eta sozialismoa uztartzen. Eta beraz, sozialismoaren eta abertzaletasunaren arteko sintesi horretatik abiatuta ulertzen da subjektu berria: Euskal Herri Langilea izenez ezaguna. Horrela, ETAK nazioaren ulerkeraren eraldatu zuen, abertzaletasun tradizionalaren iruditegi etnizista gaindituz eta herritartasun demokratikoago bat aldarrikatuz (Olariaga, 2018a: 14-15). *Branka* aldizkariaren lehenengo zenbakian Krutwigek (1966: 28) abertzaletasun iraultzailearen inguruan «bere bi aurpegi ideologikoak txanpon beraren bi aldeak bezala batuta» dituela adierazten du. Haren esanetan, euskal abertzaletasun iraultzailearen bi alderdiak une oro nahasiz soilik lortuko da teoria politiko horren botere iraultzailea garatzea.

Erakunde abertzaleak euskal etnia birdefinituko du, kultura konpartitu batean eta batez ere euskararen oinarritzen dela esanez. Nazioa, berriaz, etniak faktore objektibo horien kontzientzia hartzean sortuko litzateke. *Branka* aldizkarian ere Txillardegik (1966: 53) hizkuntza herri baten sorkaririk funtsezkoena dela azaltzen du, nazio-jakintzaren oinarria. Humboldtten lana goretsi eta hizkuntza herri baten arima dela aldarrikatuz. Gainera, azpimarragarria da euskarari kontzientzia hartzeko papera ere aitortzen diola ETAK (Apaolaza, 2012: 101). Halere, ETAK ez du hizkuntza euskal nazioko kide izateko baldintza determinante gisa jartzen, baizik eta sinbolo indartsu eta lehentasunezko zat. Beraz, zer da determinantea naziotasunerako kide izateko? Lurraldetasuna eta klase soziala: «Euskal herritarra Euskal Herrian bizi eta lan egiten duena da» esaldia formulatu zuen. Naziotasunerako formulazio horrek, euskal herritar batzuk naziotasunetik at uzten zituen arren —burgesia eta oligarkia—, jendartearen sektore zabalago bati atea ireki zion, immigrazioari batez ere (Apaolaza, 2012: 101-102).

5.2. Demokrazia erradikala

5.2.1. Neoliberalismoa, estatua eta demokraziaren pribatizazioa

1970eko hamarkadatik aurrera, eta bereziki hurrengo bi hamarkadetan, neoliberalismoa eta globalizazioa garatu ziren, eta horien eskutik, eskubide sozialen gainbehera hasi. Eredu politikoari dagokionez, nazioartean Margaret Thatcher (Erresuma Batua) eta Ronald Reaganen (Ameriketako Estatu Batuak) agintaldi liberalak eta gerra hotzaren amaiera dira aipatzekoak. Espainiako estatuan frankismotik demokrazia liberalera egindako trantsizioak markatu zuen aro hori, ondoren, Felipe Gonzalezen eskutik pribatizazio- eta desindustrializazio-politikak garatu ziren, Hego Euskal Herrian eragin soziopolitiko handiak izan zituztenak.

Testuinguru horretan, eta estatuen laguntzarekin, finantza-kapitalak ofentsiba koordinatua garatu du —ideologiko, ekonomiko eta politikoa—, estatu bakoitzean eragin ezberdina duena, eta kapitala-lana dialektika eraldatzen duena, ekonomiaren maila globaleko desregulazioa bultzatuz. Ongizate-estatuan, demokrazia-mailan eta errepresentazioan atzera eginez (Máiz, 2016).

Horrez gain, Sassenek (2010) azpimarratzen du neoliberalismoak programa estatualen desnazionalizazioa eta arauen egikaritzeen pribatizazioa dakarrela. Gainera, aldaketa horiei bidea zabaldu dieten hiru prozesu aipatzen ditu: jabetza pribatuaren zabalpena, funtzio publikoen pribatizazioa eta interes pribatuen injerentzia politika publikoen formulazioan. Aipatutako fenomenoek erroan demokraziaren pribatizazioa dago. Demokraziaren pribatizazioa prozesu gisa ulertzen du Goikoetxeak (2017: 13), zeinaren bitartez kapitalaren jabeek beren ahalduz-iturritzat hartzen dituzte noizbait herritarrak boteretzeko balio izan zuten mekanismo eta estrategia guztiak. Besteak beste, estatua, lurraldea eta botere-teknologia, hala nola hezkuntza eta osasungintza.

Horrenbestez, demokraziaren pribatizazioaren ezaugarria da estatuari zegozkion ahalmenak eta gaitasun publiko-politikoak —hala nola erabakiak hartzea, legeak egitea eta ezartzea, horiek ebaluatzea, berriro egokitzea, ondasunak ekoiztea eta banatzea— esku pribatuetara igarotzea: enpresak, adituak, lobbyak, interes-taldeak, eragile exekutiboak (Goikoetxea, 2017: 37). Oinarrizko erabakiak herritarren kontroletik oso urrun dauden esferetan hartzen dira, eta botere ez-aukeratuen bidez. Hau da, erabakien muina herri-subiranotasunetik kanpo geratzen den eremuetan ebazten da (Errejón eta Mouffe, 2015: 57).

5.2.2. Demokrazia erradikala eta demokratizazioa

Aurrez aipatutako neoliberalismoaren oldarraldia marxismoaren eta sozialdemokraziaren gainbeherak azkartu zuen. Gainera, Mendebaldearen eskuinerako olatuak (Khol, Thatcher, Reagan) ezkerrearen iruditegi iraultzailea ezabatu zuen (Ansa, 2018: 86). Testuinguru horretan, eta aztertu dugun demokraziaren pribatizazioa aurrera zihuan heinean, demokrazia erradikalaren paradigma politikoa garatu zen, bereziki Ernesto Laclau eta Chantal Moufferen (1987)¹ eskutik.

Laclau eta Mouffek erradikalizatzeko demokratikoarekin ordura arteko klase-borroka klasikoa eta marxismoa gainditzeko saiakera egin zuten, parametro berriak bilatuz. Testuinguru horretan Laclauen eta garaikide duen Slavoj Žižeken arteko eztabaida luzea abiatu zen. Esloveniarrak azken hamarkadetakoko marxismoaren autore esanguratsuenetakotzat har dezakegu, eta kritiko mintzatu da populismoaren eta erradikalizatzeko demokratikoaren aurrean: «Nik sostengatzen dut Laclau eta Moufferen “demokrazia erradikala” larregi hurbiltzen dela iruditeria liberal demokratikoa “erradikalizatzeraz”, berorren horizonte barruan kokaturik». Horrela, ezarritako ordena onartzea eta iraultzari uko egin izana leporatzen die Laclau eta Moufferi. Bestetik, neoliberalismoari aurre egiteko eta Žižeken immobilismoa

1. Urte horretan argitaratu zuten Laclau eta Mouffek *Hegemonia eta Estrategia Sozialista: Demokraziaren erradikalizazio baterantz* lana, postmarxismoaren, demokrazia erradikalaren eta ezkerreko populismoaren zutabeak jarri zituen obra.

gainditzeko Laclaren lana gaketat hartu izan dute beste autore batzuek (Gascon, 2014).

Guk demokrazia erradikalean sakonduko dugu, eta ondoren, prozesu demokratizatzaileen funtsa azalduko. Aurretiaz, esan behar da demokrazia kontzeptu konplexua dela. Abiapuntu gisa, kontuan izan behar da demokrazia gizarte-antolakuntza oso ezberdinen bidez mundu mailan zabaldua dagoela. Horregatik, demokrazia kontzeptu estatiko gisa ulertzetik urrun, bizirik dagoen paradigma gisa ulertu behar da (Calle, 2011: 9-11).

Demokrazia erradikala desberdintasun eta diskriminazio guztien aurkako garabidea da, betiere, pluraltasuna ukatu gabe, betiere, gizartearen itxitura posible dela pentsatu gabe. Erradikalizatzeko demokratiko horrek bildu egin beharko ditu jarduera anti-kapitalistak, anti-inperialistak, anti-arrazistak, anti-sexistak, anti-individualistak... (Zubiaga, 2017: 123). Paradoxikoa izan daitekeen arren, erradikalizatzeko demokratikoaren planteamenduak bere gain dakar demokrazia oso baten egikaritzearen ezintasuna. Horrenbestez, demokrazia pluralistak ezinbestean instituzio demokratikoak auzitan jartzeko aukera ekarri behar du (Errejón eta Mouffe, 2015: 105). Era horretan, Mouffek demokrazia erradikala aurkezten duenean, gizartearen pluraltasuna, antagonismoen existentzia eta ordena sozialean boterearen existentzia onartzen duen programa gisa definitzen du (Quintela, 2016: 18). Prozesu-izaera du beraz, eta Calleren (2011: 8) arabera, kultura askok, ikuspegi teoriko ezberdinek, hamaika praktikak, modu implizitu edo esplizituan, bultzatzen dute demokrazia erradikalaren eztabaida.

Demokrazia erradikala askatasunean, berdintasunean eta aniztasunetik parte hartzean oinarritzen da. Behetik gora garatzen da, kooperazio- eta erabakitze-prozesu horizontal eta globalen bidez. Eta azkenik, herritarrek, komunitateek edo herriek garatu behar dute ezinbestean. Era berean honako kontzeptuekin lotzen da demokrazia erradikala: demokrazia soziala, demokrazia zuzena, demokrazia komunitarioa, herri-boterea, demokrazia lokala, demokrazia bizia eta demokrazia parte-hartzailea (Calle, 2011: 12).

Honenbestez, ez dugu demokrazia erradikalaren eredu zehatz bat aurkituko, baizik eta behetik abiatuko diren prozesu demokratikoak artikulatzeko aldarrikapena (Calle, 2011: 16). Demokrazia erradikalak demokraziaren beraren eta parte-hartzearen ideiak berraztertu eta berrasmatu egiten ditu. Demokrazia autoritarioak —lehenago demokraziaren pribatizazio gisa definitu dugun prozesuak— krisi globalean kokatzen gaitu, demokrazia erradikalaren ahaleginak krisi hori lehengoratzera zuzentzen dira (Calle, 2011: 19).

Aztertu lez, neoliberalismoak eta demokraziaren pribatizazioak prozesu eta borroka demokratizatzaileak sortu dituzte. Demokratizazioa bera ere, prozesu gisa ulertzen du Goikoetxeak (2017: 81), eta demokrazia erradikalaren baitan kokatzen den kontzeptu hori aztertzen du. Horrela, demokratizazioa ez da sekula amaitzen, *demos* delakoa ez baita gauza konkretu bat, baizik eta harremanen, instituzioen, lurraldeen, praktiken eta diskurtsoen multzo bat, zeina lausoa eta nahasia baita beti, eta etengabe eraldatzen da. Horrez gain, Goikoetxeak berak (Goikoetxea, 2017:

80) erakusten digunez, nazioa edo herria hartu delako subjektu subiranotzat, hala, estatu-subiranotasuna edo estatu subiranoa bera demokratizatu dira eta herria ezarri da autoritate politikoaren ahots zilegi gisa.

Demokratizazioa aurrera joanez gero, gero eta herritar gehiagok gobernatzen du bere sistema politiko eta sozioekonomikoa. Eta bide horretan sakontzeko, gizarteak demokratizatzeko gakoak, politizazioa, konfrontazio politikoa garatzea eta horren emaitza instituzionalizatzea dira (Goikoetxea, 2017: 1927-129). Bi hitzez, demokratizazioa demokraziaren garapena maximizatzeko prozesua da, demokrazia erradikala helburutzat duena.

5.4. Demokrazia erradikalak mugiarazitako kontzeptuak ENAMen

5.4.1. Nazioa eta nazionalismoa

Nazionalismoak erabiltzen dituen kontakizunak eta kontakizun horien subjektua den nazioak sortzen dituen eta egiten dituen ekintzei esango diegu diskurtso nazionalista (Apaolaza, 2012: 92). Diskurtso nazionalista ulertzeko, Laclaren diskurtsoaren kontzeptuan oinarrituko gara: «Diskurtsoa ez da soilik ahozko eta idatzizko eremura mugatutako zerbait, askotan argitu dugun bezalaxe, baizik eta harremanek rol eratzailea jokatzen duten elementu multzo bat» (Laclau, 2005: 92). Beraz, diskurtsoei izaera deskriptibo hutsa ematek urrun, errealtatea aldatu edo bere horretan mantentzeko tresnak dira. Eta horretarako, diskurtso nazionalistaren barruan komunitate batek nazioaz dituen usteak, mitoak... eta horiek denek eragiten dituzten ekintzak ere sartzen dira (Apaolaza, 2012).

Euskal Herrira itzuliz, euskara izan da azken hamarkadetan diskurtso nazionalista artikulatu duen aldagaia, euskalduntasuna beraz (Azurmendi, 2017). Euskalduntasuna garatzeko bi modu nagusi izan dira: euskalduntasun linguistikoa eta euskalduntasun politiko-nazionala. Identitatea garatzeko bi modu beraz. Lehenengoak, etnia nozioarekin du harremana, eta ez du programa politikorik garatzen. Bigarrenak, etnia nozioa gainditu eta nazio gisa garatzea dakar, hain justu ere, programa politiko bat izan eta defendatzerakoan (Odriozola, 2017). Zalantzarik gabe, ENAMen jarduna identitatearen bigarren ulerkera indartzean oinarritu da.

Lehenago ikusi dugunez, ez da beti euskara abertzaletasunaren ardatzean egon, eta aldaketa-zantzuak ere badaude gaur egun. Dinamismo horretatik abiatuta soilik uler daiteke nazionalismoa, eta nazionalismoen esperientzia ezberdinek adierazten dute nazioaren izate aldakorra (Mateos eta Zabalo, 2009). Hainbat autorek euskal abertzaletasunaren barruan aldarrikatzen duten azken paradigma-aldaketa honakoa da: «Estatuaren legitimazio-bide klasikoa (nazioa) baztertu eta *demos* erabakitzailea jarriko litzateke ordainetan» (Azurmendi, 2017).

Sassenen arabera (2012: 9), Kataluniakoa edo Euskal Herrikoa bezalako autonomia nazionalerako proiektuak ere modernitate global berriaren parte dira, nahiz eta lurraldearen historia sakonean errotuta egon. Euskal Herrian estatuz azpiko autogobernu-sistemak izateak estatu gabeko nazioen eskalako *demos*-en sorrera ekarri du. Era berean, horrek nazio gisa garatzeaz gain, demokrazia gisa garatzea

ahalbidetu du eta gatazkak esentzia kulturala galdu eta demokratikoa irabazi du (Azkune, 2016: 37).

5.4.2. Autodeterminazio-eskubidea eta erabakitze eskubidea

Garai historiko bakoitzean nazioek estrategia eta legitimazio-iturri ezberdinak baliatu dituzte independentzia lortzeko. XX. mendean autodeterminazio-eskubidea izan da nagusi, deskolonizazio-prozesuei estuki lotuta ageri zaiguna. Autodeterminazio-eskubidearen oinarrian nazio baten existentzia dago eta, beraz, bere burua determinatzeko ahalmena, finean, estatu-egitura bat izateko erabakimena esleitzen zaio (Tudela, 2016).

Azken hamarkadetan, bereziki 1990eko hamarkadatik aurrera, erabakitze eskubidearen kontzeptua ageri zaigu, kontzeptu berria beraz. Gaur-gaurkoz, ez dago inongo legiaziotan jasota, ez estatala ezta internazionala ere, paradigma berri baten inguruan gabiltza eta (López, 2018: 60). Gainera, ez du autodeterminazio-eskubideak duen karga juridiko, kultural edo ebaluatiborik (Tudela, 2016: 478).

Erabakitze eskubidea autodeterminazio-eskubidearen interpretazio demokratikoa da, hots, printzipio nazionalan baino gehiago printzipio demokratikoan oinarritzen da (López, 2018: 59). Erabakitze eskubidearen arabera, edozein komunitate politikok bere etorkizun instituzionalaren inguruan erabakitze aukera izan behar du, independentziaraino ere, betiere komunitate horrek borondate argia izanez gero ariketa horretarako, eta prozedura demokratikoa erabilita. Era berean, erabakitze eskubidea gauzatzeko beharrezkoa da komunitate politiko gisa onartua izatea, *demos* gisa (López, 2018: 61).

Autodeterminazio-eskubidearekin alderatuta, subjektuak ez du zertan nazio bat izan, eta ez da horren iragan historikoan oinarritzen (López, 2018: 59), gainera, bi eskubideak uztargarriak izan daitezke. Bestetik, erabakitze eskubidea ezin daiteke auzi zehatz bakarrera mugatu, aukeraketa bakarrera, independente izan edo ez. Galdera edo auzi bakar batera lotuta ez dagoela ulertuta, ez da estatikoa, eta prozesu-izaera du —autodeterminazio-eskubidearen une jakin bateko izaeraren aurrean—, eta, beraz, erabakitze eskubidea herritarren ahalduntze-prozesu bati lotuta dago (López, 2018: 64-66).

6. Ponentzia politikoen azterketa

Ikerketa-diseinuaren atalaren hasieran une historikoen zein testu politikoen aukeraketaren nondik norakoak adierazi ditugu. Hortaz, testuen izenburuak jarri ondoren, testu-azterketan murgilduko gara:

- 1980ko hamarkada, HASI alderdiaren II. Biltzarra (1983): «HASI II. Biltzarrea: Independentzia eta sozialismoaren bidean. Desarrollar el partido. Fortalecer el bloque KAS. Avanzar con la unidad popular HB».
- 1990eko hamarkada, Herri Batasunaren Urrats Berri prozesua (1991): «1. Oinarrizko txostena: egoera politikoen azterketa», «2. Oinarrizko txostena: Batasunean gorantz. Abertzaleen eta ezkerren proiektu

amankomunerantz» eta «3. Oinarrizko txostena: Herri Borroka. Ideien gatazka. Iharduera politikorako erizpideak».

- 2010eko hamarkadaren hasiera, Sorturen eratze-prozesua (2012): «Ponentzia 1/2: Oinarri ideologikoak eta antolakuntza ereduak» eta «Ponentzia 2/2: Ildo politikoa eta komunikazioa».
- Gaur egungo fasea, Abian eta Sorturen birfundazio-prozesua (2015-2016): «Euskal Herria Zutik eta Abian», «Zohardia: oinarri ideologikoak» eta «Zohardia: ildo politikoa».

6.1. 1980ko hamarkada

Aztergai dugun testua Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailea (HASI) alderdiak 1983. urtean egindako bigarren kongresukoa da. Ponentzia horrek kongresu horretan eztabaidatu ziren dokumentuen bilduma osatzen du.

1970eko hamarkadaren amaieran hainbat alderdi eta antolakunde koka ditzakegu Ezker Abertzalearen baitan. Besteak beste, LAIA, EAE-ANV, ESB eta HASI dira aipagarrienak. 1983. urterako, LAIA eta ESB alderdiak Herri Batasuna koaliziotik kanpo zeuden, eta beraz, HASI eta ANV alderdiek eta independenteek osatzen zuten koalizio abertzalea. Gauzak horrela, HASI Ezker Abertzalearen eta ENAMen zati bat zen. Baina era berean, haren idatziek Ezker Abertzale eta ENAM osoari egiten diete erreferentzia, eta HASIk bere gain hartzen zuen horiek koordinatu, dinamizatu, ildo politikoa garatu eta prozesu iraultzailearen gainean teorizatzekeo papera (HASI, 1983: 19).

Sasai historiko honi erreparatuz, nazioarteko testuinguruan gerra hotzak, nazio-askapenerako mugimenduak eta langile-borrokak pisu handia dute. Espainiako estatuari dagokionez, trantsizioa egonkortzen ari da —hain zuzen ere 1982an Felipe Gonzalezen PSOE heltzen da gobernura—, eta ENAMen eta Espainiako estatuaren arteko gatazka armatuaren urte gordinenak dira, tentsio politiko eta sozial ikaragarriekin.

Gizarte-azterketarako, analisi materialista eta marxista baliatuta, nazioarteko testuinguruaren azterketa da ponentziaren oinarri nagusia. Kapitalismoaren azken fasean kokatzen du mundua HASIk, inperialismoan hain zuzen ere, zeina «estatu ekonomikoki pribilegiatuek Herriak dominazio politiko bidez konkistatzeko eta/edo produkzio merkatu berriak konkistatzeko joera expansionista da» (HASI, 1983: 70). Inperialismoak, beraz, ENAMek garatzen duen borroka ere ardatzen du, hau borroka antiinperialista baita: «Kapitala-lana kontraizan nagusia Subiranotasun Nazionalaren eta Kapitalismo Inperialistaren arteko borrokan konkretatzen da» Euskal Herrian (HASI, 1983: 40), eta horrela; «sozialismorako borroka, nahitaez, nazio subiranía osoaren aldeko borrokatik iragaten da». Honenbestez, ENAMen borroka honen ondorioak ezinbestean dira antiinperialistak (HASI, 1983: 79)².

2. Aztertutako dokumentu guztien zitak dokumentu originalaren hizkeran ageri dira, horietako hitz batzuk gaur egungo euskara batuan onartuta ez dagoen ortografiarekin idatzita egon arren.

Gauzak horrela, inperialismoa eta klase-borroka dira euskal nazio-askapenerako borrokaren ardatz nagusiak. Helburu estrategikoak independentzia, sozialismoa, Euskal Herri birbatua eta euskalduna dira, eta horiek lortzera bidean pauso taktiko gisa «haustura demokratikoa» plazaratzen da: «KASek badu proiektu politiko konkretu bat; eta berau haustura demokratikoaren alternatiba taktikoan oinarritzen da» (HASI, 1983: 18). Horrek, «Euskal Herriaren iraupenerako baldintza demokratiko minimoak, nazio-berreraikuntzarako benetako oinarriak jasotzen ditu» eta (HASI, 1983: 39). Haustura demokratiko horrek KAS alternatibaren gauzapena bilatuko du, eta «demokrazia aurreratuko» egoera baten formulazio gisa ulertzen da (HASI, 1983: 41). Haustura horretarako, «herritar mailako sektore handiak bereganatzeko gauza izatea» eta «iraultza sozialistaren lehen etapako iraultza herritarra lortzea» beharrezkoak dira (HASI, 1983: 18). Horrela, autodeterminazioa bilatzen duten herritarrek aliantza horretan espazioa izango dute (HASI, 1983: 43).

Aztertu dugunez, marxismoa —oinarri teoriko-zientifikotzat marxismoa hartzen da (HASI, 1983: 15)—, klase-borroka eta inperialismoa gisako elementuen garrantzia zentrala da 1980ko hamarkadako ENAMen. Beraz, demokrazia ez da lehen mailako kontzeptua, baina era berean, estrategia politikoaren garapenerako funtsezko papera aitortzen zaio, pauso taktikoa hezurramitzen baitu demokraziak, «haustura demokratikoaren» bidez.

Alta, ezin daiteke demokraziaren ulerkera hori demokrazia erradikalaren logikan kokatu. Demokrazia erradikala berdintasunean eta aniztasunetik parte hartzean oinarritzen da, behetik gora garatzen da, kooperazio- eta erabakitze-prozesu horizontal eta globalen bidez. Eta azkenik, herritarrek, komunitateak edo herriek garatu behar dute ezinbestean (Calle, 2011: 12). Demokraziaren papera funtsezkoa izan arren, paradigma klasikoago baten baitan ulertu behar dugu, marxismoaren ulerkeraren baitan.

«Nazio nortasunaren defentsari dagokionez, aparteko garrantzia du autodeterminazio-eskubidea garatu ahal izateak duen izaera demokratikoa azpimarratzeak» (HASI, 1983: 40). Horrela legitimitate nazionala izanik nagusi eta bakarra 1980ko hamarkadako ENAMen diskurtso nazionalistan. Naziotasunaren ulerkeran, ETAREN V. Biltzarrean bezalaxe, klase soziala da determinantea, eta euskara elementu sinboliko garrantzizkoena: berreuskalduntzea «nazio-berreraikuntzarako nahitaezko elementua» (HASI, 1983: 41) izanik. Gauzak horrela, ETAREN V. Asanbladan garatutako eta Apaolazak (2012) edo Zelikak (2017) aztertutako naziotasunaren ulerkeraren oso antzekoa mantentzen da.

6.2. 1990eko hamarkada

Testu-azterketa garatzeko Herri Batasunaren Urrats Berri eztabaida-prozesuko dokumentu multzoa aztertuko dugu. Dokumentu multzo hori Herri Batasunako militantziak eztabaidatu zuen 1991ko udazkenetik 1992ko udaberrira. Ikusiko dugunez, hurrengo urteetako Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren aldaketa nagusien oinarriak ezarriko ditu eztabaida-prozesu horrek.

Nazioarteko testuinguruari dagokionez, aldaketa sakonak bizi ziren 1990eko hamarkadaren hasieran, eta horrek presentzia handia du eztabaida-prozesuan zehar:

bloke sozialistaren porrota eta kapitalismoaren hegemonia globala, Europako hainbat estatutan autodeterminazio-eskubidea aplikatu eta independentzia-prozesuak abiaraztea —Lituania, Estonia, Ukraina...— eta Europako Ekonomia Erkidegoaren (EEE) indartzea —Espainia eta Portugal 1986an sartu ziren— besteak beste. Bestetik, Espainiako estatua modernizatzen ari zen eta demokrazia parlamentarioan egonkortuta zegoen, batik bat nazioarteari begira: PSOEren agintera heltzea (1982), EEEra sarrera 1986an eta OTANen jarraitzeko erreferenduma urte berean. Hala ere, horrek ez zuen Euskal Herrira egonkortasun politikorik ezta sozialik ekarri: ZEN Plana, GALen gerra zikina, langile-mugimenduan gatazka handiak, gatazka ekologistak, ETAren borroka armatua, Ajuria Eneko ituna eta, oro har, tentsio politiko eta sozial handia.

ENAMi begira, aipatutako testuingurura egokitzeko prozesu bete-betean zegoen, ildo politiko eta ideologikoari zein antolakuntza-ereduari dagokienez. Horrela, 1990eko hamarkadaren hasieran HASI, ASK eta KAS desagertuko dira. Egokitzapen-prozesu hori eremu ideologiko-politikoan KAS alternatiba eguneratu eta proposamen taktiko gisa 1995ean Alternatiba Demokratikoa onartzean bukatuko da (Euskaldunon Egunkaria, 1997).

Egoera politikoaren azterketan nazioarteak pisu txikia du Urrats Berrin, eta SESB eta bloke komunistaren porrota da nazioarteko gertakari nagusia. Alta, porrot horrek ez du sozialismoaren behin betiko amaiera ekarriko: «Benetako sozialismo deiturikoaren porrotak ez du esan nahi sozialismoa proiektu emantzipatzaile gisa garaitua izan denik». SESB kritikatu eta sozialismoak demokrazia behar duela aldarrikatzen da gero: «Sozialismoak askapen proiektutzat balio du baina askatasun eta herri demokrazia baldintzetan eratu behar da, gehiengoak bereganatu behar du demokrazia formala eta parte hartze bidezkoa» (Herri batasuna, 1991a: 1).

Hortaz, sozialismoa proiektu gisa onartu bai, baina demokratikoa izateko baldintza ezartzen zaio. Bestetik, aipatu bezalaxe, bloke komunistaren porrota dela-eta hainbat estatu berri sortu ziren Europan, eta horien aurrean «nazio guztien Autodeterminazioa eta Independentziaren eskubideari baldintzarik gabeko laguntza» (Herri Batasuna, 1991a: 2) onartzen zaie. Honenbestez, «Ezker Abertzalearen jarrerak, logikaz, zapal dutako nazioek autodeterminazio eskubidea eta independentziarako duten eskubidea baldintzarik gabe sostengatzea izan behar du», «ezkerreko edo eskuineko ustezko orientazioei baldintzapetu gabe» (Herri Batasuna, 1991a: 2-3).

Estatu gabeko nazioen aldeko baldintza gabeko posizio horrek argi adierazten du ENAM 1990eko hamarkadan ardatzen duen faktore zentrala aldatu dela: inperialismo eta klase-borrotatik, demokrazia eta autodeterminazio-eskubidera. Eta era berean, nazioartearen azterketak ere pisua galtzen du, eta Espainiako estatuaren zein Euskal Herriaren azterketa politikoa da nagusi.

1990eko hamarkadako ENAMen helburua «euskal gizartea demokratizatzean» datza, pauso taktiko huts izatea gaindituz eta helburu estrategiko gisa kokatuz (Herri Batasuna, 1991b: 30). Espainiako eta Frantziako estatuak lapurtutako eskubide individual eta kolektiboak berriz ere herritarrentzat irabaztea hain zuzen ere. Eta

demokrazia herriak gobernatzen duen egoera litzateke, herritarren beharrak herriak berak gestionatu eta kontrolpean edukiz. Horrenbestez, euskal herritar guztien banabanako eskubideak zein berezko nortasuna duen nazio gisa autodeterminatzeko eskubide kolektiboak dira ardatzak (Herri Batasuna, 1991b: 30). Honenbestez, «demokratizazioa»ren agerpenak demokrazia erradikalera hurbilpena dakar, Calle (2011) edo Goikoetxeak (2017) aztertzen duten bezalaxe, batetik, prozesu-izaera hartuta, bestetik, helburu estrategiko gisa kokatuta.

Gauzak horrela, demokraziaren pisua sozialismoaren ulerkeraraino ere iristen da. Hortaz, «sozialismo demokratikoa» aldarrikatzen da, zeina ez den sozialdemokraziarekin nahastu behar. Herri Batasunarentzat «sozialismoa erabat demokratikoa izango da, edo ez da sozialismorik izango» (Herri batasuna, 1991b: 40). Eta ondorengo esaldiarekin betetzen du edukiz: «Egiazko askatasun formalak gozatzea eta demokrazia eskuhartzailea eta ordezkotzazkoa elkarren osagarri bilakatuko dituen sistema egotea inplikatzeko duen egiazko demokrazia ekonomiko eta politikoaren alde» (Herri Batasuna, 1991b: 40).

Ikus daitekeenez, demokrazia erradikalaren paradigmara hurbiltzen da ENAM: prozesu gisa kokatu, demokrazia ezberdinen arteko uztardura planteatu eta proiektu politikoaren eremu guztietan kokatuta. Hala ere, erdigunea ez dago herritarrengan edo norbanakoengan —nahiz eta presentzia irabazi duten— eta oinarri demokratikoetan sostengatzen den eskubide kolektibo bat kokatzen da zentroan 1990eko hamarkadako Herri Batasunak: autodeterminazio-eskubidea. HBk zehazten du: «Autodeterminazio eskubidea, berez, edozein herri nahiz nazio duen funtsezko eskubide kolektibo eta demokratikoa da. Herri baten barne eredu soziopolitikoa, bere osotasuna eta lurralde alorreko eredu politikoa» (Herri Batasuna, 1991b: 34). Gainera, Euskal Herria hartzen du subjektu bakar gisa, eta eskubide horren kolektibotasunean jartzen da arreta. Beraz, ez dago demokrazia erradikalean ohikoa den herri edo demokrazia gisako legitimitaterik, eta hori nazio-legitimitatearen baitan ulertzen da.

Ardatza Euskal Herriaren demokratizazioa izanik, lortu beharreko demokraziaren inguruan hausnartzen da. Horrela, Herri Batasunarentzat «herritarren partaidetza gizartearen bilakaeran» eztabaidagai nagusietakoa bilakatuko da eta «hitarren partaidetza du funtsezkoa» demokraziak (Herri Batasuna, 1991b: 8-9). Honenbestez, demokraziaren adierazpide nagusia zuzeneko demokrazia dela ulertzen du Herri Batasunak, eta hura bultzatuz, demokrazia ordezkotzailea zein parte-hartzailea elkarren arteko osagarri izango diren egoera lortu nahi du (Herri Batasuna, 1991c: 10). Zalantzarik gabe, demokraziaren ulerkera konplexu eta garatuago baten aurrean gaude 1990eko hamarkadako ENAMen.

Naziotasunaren ulerkeran sakonduz, euskarak pisu handia du: «Euskal Herriaren nazio-hizkuntza, gure komunitate etnikoaren nortasun kolektiboaren ezaugarri nagusia da», eta ENAM osoarentzat «euskara da hizkuntza nazional bakarra» (Herri Batasuna 1991b: 36-37). Euskarak ardatzen duen naziotasuna izango da nagusi, era berean, konnotazio demokratiko eta aurrerakoi edo ezkerrekoekin konbinatuta. Klase sozialari erreferentziak urriagoak izan arren, «borroka nazionala eta soziala proiektu beraren bi alderdiak» direla adierazten da (Herri Batasuna, 1991b: 26).

6.3. 2010eko hamarkadaren hasiera

Ikusi dugunez, 1990eko hamarkadatik aurrera, ENAMek estatuarekin aldebiko negoziazio politikoaren bidez marko demokratiko bat erdiesteko estrategia izan zuen ardatz. Horren ondorioz, Lizarra-Garaziko hitzarmena (1998) eta Loiolako elkarrizketan oinarritutako negoziazio-fasea (2005-2007) garatu ziren, biek ala biek porrot egin zuten arte. Ondorioz, aldebiko negoziazioaren estrategia agortutzat eman, eta soilik bide politiko eta demokratikoen bidez eta aliantza estrategiko zabalak ardatz harturik, ENAMek estrategia errotik aldatu zuen (Ezker Abertzalea, 2010). 2009.-2010. urteetan Zutik Euskal Herria eztabaida egin ondoren eraman zen aldaketa aurrera. Testu-azterketarako 2012. urtean Sorturen eratze-prozesuan erabilitako «Sortzaile: Sorturen eratze prozesua» txostenak erabiliko ditugu. Sortuk bere burua ENAMen ondareztat du, aurrez aipatutako Zutik EH prozesua egiten baitu bere (Sortu, 2012a: 4).

Bide soilik politikoak ardatz hartuta, 2011. urtean ETAk baldintza gabeko behin betiko su-etena iragarri zuen, Aieteko Bake Konferentziari erantzun gisa. Ordurako, Ezker Abertzalea legeztatze-prozesuan zegoen. Nazioarteko testuinguruari dagokionez, 2008an lehertutako krisi ekonomikoaren eragina gero eta nabarmenagoa zen. Krisi ekonomikoak ondorio sozial eta politiko larriak eragin zituen, herritarren bizimailaren pobretzean zein krisiaren ondorioen aurkako erantzun soziopolitikoetan: M15 Espainian eta greba orokorrak Hego Euskal Herrian adibidez.

Sortuk nazioarteko azterketari dagokionez, 2008az geroztiko krisi ekonomiko eta finantzarioa krisi sistemiko eta zibilizazio-krisi gisa definitzen du (Sortu, 2012b: 4). Mundu mailako agertokian fase politiko multi-polarreranzko joera nabari du Sortuk —BRISC osatzen duten herrialdeen gero eta indar handiagoagatik bereziki—. Nazioartearekin jarraituz, neoliberalismoa gaitzesten du, eta honako posizio hau hartzen du horren aurrean: «Erabateko demokrazia eta haren oinarriak neoliberalismoarekin bateraezinak dira» (Sortu, 2012b: 32), «Euskal Herriaren borroka desberdintasun sozial ikaragarriak eragiten dituen neoliberalismo basati eta esplotatzailea gaudituko duen eredu ekonomiko eta sozialaren aldeko borrokan txertatuta dago» (Sortu, 2012b: 43).

Sortuk Euskal Herriari bere burujabetza indarrez kendu izana adierazten du, eta geroztik, eskubide kolektibo zein indibidualak ukatuak direla (Sortu 2012b: 21). Alderdia «abertzaletasun iraultzailean» oinarritutako sustrai abertzalean kokatzen da, eta Euskal Errepublika independente, sozialista, feminista eta euskalduna du helburu. Gainera, Euskal Herria klase-borrokaren esparru autonomo gisa aldarrikatu, eta «langileria eta herri sektoreak babestuko dituen eta gure eskubide nazional eta sozialak itzuliko dizkigun euskal marko nazionala aldeztu du» (Sortu, 2012b: 22).

Bestetik, alderdi abertzaleak ENAMen bilakaera estrategikoa konfrontazio demokratikoaren aroan kokatzen du: «Aldebakartasunez, soilik bide politiko eta demokratikoen bidezko konprometitutako prozesu demokratikoa» (Sortu, 2012b: 25). Ikus dezakegunez, oinarri iraultzaile eta demokratikoen artean mugitzen da Sortu: «Proiektu iraultzaile, abertzale eta ezkertiararekin kontsekuente izatea eta, aldi berean, erabakitze eskubidearen eta aurrerabide sozialaren alde abian jarritako

prozesu demokratikoarekin koherentea izatea» (Sortu, 2012b: 27) ardatz hartuta. «Ideia sozialista eta feministak» eta «euskal zibilizazioaren oinarriak» kokatzen ditu Euskal Estatuaren muinean, betiere, «Euskal Estatua euskal herritarren gehiengoak hartutako erabakiaren bidez gauzatuko dela» adieraziz (Sortu 2012b: 28).

Ondorioz, demokrazia erradikalaren baitako autoreek (Mouffe, Calle, Goikoetxea, López...) garatutako paradigmak —erabakitzeko eskubidea, gehiengoaren babesa, demokrazia, parte-hartzea...— eta abertzaletasun iraultzaileko paradigmak uztartzen dira. Ildo horri jarraiki, horixe bera ikus dezakegu helburu estrategikoetan, batetik, klasikoak —independentzia eta sozialismoa— mantentzen ditu, eta feminismoa gehitu. Bestetik, helburu estrategiko hauetan demokraziak txertatuta jarraitzen duela ikus dezakegu: «Parte hartzeko bidezko demokrazia beti oinarri izanda», «Euskal Estatua euskal gizartearen erabakitik eraikiko da», «helburua jendarte guztiz parte-hartzailearen eredia bultzatzea da», «eredu sozialista demokrazian oinarritu behar da ezinbestean» (Sortu, 2012a: 16-22 eta 2012b: 30).

Helburu estrategikoez gain helburu taktikoak ere zehazteko orduan, «gutxieneko demokratikoak bermatuko dituen egoeraren bila jardungo du ENAMek, Euskal Herriaren nazio izaera eta erabakitzeko eskubidea onartuak izan daitezen» (Sortu, 2012a: 4). Autodeterminazio-eskubideari dagokionez, ez da une zehatz baten baitan ulertzen, eta euskal herritar guztien erabakitzeko eskubidea prozesutzat hartzen da. Hain zuzen ere, prozesu demokratikoaren muina (Sortu, 2012a: 4-5). Prozesu horri «Iraultza Demokratiko Nazionala» deituko dio Sortuk, eta «erabakitzeko eskubidea eskabide demokratiko» gisa izendatuko du (Sortu, 2012a: 6). Bide horretatik, eta aipatutako gutxieneko demokratikoak aintzat hartuta, Hegoaldeko lau herrialdeen Autonomia Estatutua eraiki nahi du Sortuk (Sortu, 2012a: 6). «Euskal Herriaren nazio izaera eta autodeterminazio eskubidea onartuko dituen marko demokratikoa» erdiesteko asmoz (Sortu, 2012b: 19).

Demokraziaren kontzeptuan sakonduz, zera dio: «Demokrazia erreala gure indar nazionala eta Estatu zapaltzaileen ahulgune izatea lortu behar dugu» eta horretarako, «konponbide demokratikoaren subjektua eta hartzailea euskal herritarren izan behar dira» (Sortu, 2012b: 33). Era horretan, Sorturen arabera «Euskal Estatua euskal herritarren gehiengo handiari desiragarria eta, batez ere, beharrezkoa iruditzen bazaio soilik iritsiko da» (Sortu, 2012b: 37). Honenbestez, «euskal herritarrek apurka-apurka onartzea burujabetza eta independentzia gaur egungo markoak baino demokrazia politiko eta sozial sakonagoko markoak direla» du helburu Sortuk (2012b: 41).

Ikusi dugunez, 2010eko hamarkadaren hasierako ENAMen marko demokratikoaren oinarria autodeterminazio-eskubideak ardatzen du, eta, beraz, nazio-eskubideak edo legimititateak. Era berean, berau ulerkera demokratikoarekin lotzen da behin eta berriz, eta gero eta nabarmenagoak dira «euskal herritarrei» edota «gehiengoari» eginiko erreferentziak, oso modu argian adierazten delarik euskal herritarren gehiengoaren erabakiei zor zaien errespetua.

Naziotasunari erreparatuta, Sorturentzat lurraldetasuna —euskal herritarra izatea— eta euskal nazioiko kide izateko kontzientzia dira gakoak. Era berean,

nazioaren «nortasun ikur nagusia» euskara da (Sortu, 2012a: 17). Zalantzarik gabe, klase sozialak ere badu pisua, eta formulazio berrituarekin ageri zaigu, langile-klasearen heterogenotasuna —Mouffek (2015) edota Laclauk (2005) mahaigaineratzen duten moduan— oinarri duena: langabetuak, ikasleak, immigranteak, pentsiodunak eta sistemaren erpinetako sektoreak batzeko ahalegina egiten baitu.

6.4. Gaur egungo fasea

ENAMen bilakaeran aztertuko dugun azken une historikoa gaur egungoa da: Ezker Abertzaleak 2015ean egindako «Euskal Herria Zutik eta Abian» prozesuko Abian ponentzia eta Sorturen birfundazio-prozesuko (2016) Zohardia ponentzia aztertuko ditugu. Ezker Abertzalearen eztabaida-prozesua eta Sorturen birfundazio-prozesua hilabete gutxiren buruan burutu ziren. Honenbestez, bata bestearen jarraipen politiko zein ideologiko-estrategikoa da.

ENAMi dagokionez, ETArekin behin betiko su-etenaren ondoren gatazkaren ondorioen konponbidean aurrerapauso esanguratsurik eman ez izanak hankaz gora jarri zuen Zutik Euskal Herrian onartutako faseetako estrategia —lehenengo, gatazkaren ondorioen konponketa, eta gero, erabakitzeko eskubidearen onarpena—. Testuinguru hori dela-eta egin zituen aurrez aipatutako bi eztabaida estrategikoak Ezker Abertzaleak.

Horrez gain, nazioarteko testuingurua oldarraldi neoliberalak markatzen du, eta batik bat 2008an eztanda egin zuen krisi sistemikoak, zeinak, sasoi horretarako, Espainiako estatu osoa eta Euskal Herria kolpatu zituen. Gainera, Espainiako estatuan estatu-krisia nabarmena zen, Kataluniako independentismoa ikaragarri hazi baitzen, eta «prozesu» izeneko prozesu independentista martxan zegoen. Era berean, Eskozian 2014an independentziarako erreferenduma egin zen, eta honen guztiaren bidez, Europan estatu gabeko nazioek independentziarako aukerak areagotu zituztela begi-bistakoa zen.

Zera dio Sortuk krisi-testuinguruaren harira: «Kapitalismoaren garapen historikoan eman diren krisi zikliko bat baino askoz sakonagoa eta estrukturalagoa da», «modernitate kapitalistak ezaugarritu duen garapen eredia bera agorpenean dago» eta «mundu multipolarreko jokaleku arriskutsu honek interes kapitalisten talka geroz eta biziagoak ekarriko ditu» (Sortu, 2016b: 5-6). Kapitalismoak sortu zituen antagonismoak biderkatu ditu globalizazio neoliberalak, eta honako ezaugarriak ditu neoliberalismoak: ezberdintasun ekonomikoen areagotzea, jendarte-sektore zabalen prekarizazioa, demokraziaren kontrako eraso eta ehundura komunitarioekiko haustura (Sortu, 2016b: 7).

Neoliberalismoaren oldarraldiaren aurrean, mugimendu askatzaileek burujabetzaren aldarrikapena dute ardatz: M15, austeritate-politiken kontrako mugimendua, mugimendu sezesionistak eta abar. Horrela, globalizazio neoliberalaren testuinguruan burujabetzan aurrera egitea herritarren ongizatearen bermea da inoiz baino gehiago (Sortu, 2016b: 8). Honenbestez, Sassenek (2012) edo Goikoetxeak (2017) garatzen duten nazioarteko azterketaren antzekotasun handiak ditu Sorturen

azterketak, neoliberalismoaren eta burujabetza-prozesuen talka ardatz nagusi gisa kokatuz.

Helburu estrategiko historikoak berretsi eta garai historikora egokitzeko hautua egiten da 2010eko hamarkadaren amaieran: «askapen nazionala eta soziala txanpon beraren bi aldeak direla» aldarrikatuz eta «oinarrizko teoria politiko gisa abertzaletasun iraultzailea» berretsiz. Subjektuari dagokionez, «euskal herritarrek» aipatzen dira, baina bereziki «sektore ezeukienak: langabeak, langile prekarioak, autonomoak, ikasleak, kooperatibistak, klase ertain soldatapekoak...» (Sortu, 2016a: 18). Hortaz, *marxismo dogmatikotik urrunduta, eta subjektuaren aniztasuna subjektu «herritar demokratikoa» baten baitan ulertuz*, besteak beste Mouffek (2015) edo Olariagak (2018b) teorizatu bezala.

Ezker Abertzaleak Euskal Sozialismoa³ du helburutzat, feminismoaren ekarpena oinarri hartuta eta Euskal Herri euskalduna erdiesteko asmoz. Estatu ez da helburua, gizarte-eraldaketarako tresna baizik, eta Euskal Sozialismoa garatzeko gakoa (Abian, 2015: 25). Horrek, esplotazio kapitalista zein ekoizpen-bitartekoen jabetza pribatuarekin amaitzeaz gain, «Euskal Herriak mendeetan zehar berezkoa izan duen ehundura komunitarioa, auto-antolakuntzarako joera eta bultzada asoziatiboa» oinarri izango ditu. Eta azkenik, XXI. mendeko sozialismoaren parametroetan kokatzen da, erradikalizatzeko demokratiko absolututzat hartuz sozialismoa. Euskal Sozialismoa, bizitzaren esparru guztietan, euskal demokraziaren erradikalizatzearekin parekatzen da (Abian, 2015: 25-26).

Demokraziaren auziari dagokionez, demokrazia liberal eta ordezkatzaila gainditu eta «sakontze eta errotze demokratikozko prozesuaren» alde egiten da. Demokrazia ordezkatzaila, parte-hartzailea eta zuzena dialektikoki eta eraginkortasunez artekatzearen alde ageri da, bereziki azken bien pisua handitzearen bidez. Bide honi jarraituz Sortuk erabakitze eskubidearen aldeko apustu irmoa egiten du, berau baita «sakontze-errotze demokratikozko prozesuaren lanabes eta adierazpenik behinena» (Sortu, 2016a: 12). Gauzak horrela, demokrazia erradikala bere egiten duela dakusagu, eta erabakitze eskubideak protagonismo berezia irabazten du.

Euskal Sozialismoa erdietsi aurretik, fase taktiko gisa Estrategia Independentista Eraldatzailea kokatzen da. Horrek, aldebakarreko prozesu subiranista baten bidez independentziaren ideia herritarren artean hegemoniko bilakatzea du helburu, «egiazko agertoki demokratikoa» lortzeko. Hegemonia ideologiko independentista hori lortzeko «mugimendu independentista zabal, anitz, sendo eta eraginkor bat sortzea da xedea» (Abian, 2015: 27). Proiektu independentista eraldatzailean sakontzea egin daitekeen ekintzarik iraultzaileena dela defendatzen du alderdi abertzaleak, ez baitago hori baino egitasmo anti-oligarkikoagorik: intrintsekoki eraldaketa sozialaren eta langilariaren, emakumeen zein herri-sektoreen interesen aldekoa delako (Abian, 2015: 25).

3. Sortuk sorrera-prozesuan helburu estrategikotzat kokatu zituen independentzia, sozialismoa eta feminismoa. Gaur egungo fasean helburu nagusizat Euskal Sozialismoa izendatu izanagatik, ez dira aurreko faseko helburuak alde batera uzten. Horiek zein beste paradigma batzuk barnebiltzen dituen proiektua da Euskal Sozialismoa Sorturentzat.

Demokraziaren errotzearen aldeko hautu honi jarraiki, eta «behetik gorako» prozesua irudikatuz, Euskal Herri konfederala aldarrikatzen du Sortuk. Hau da, jarduneko eremu politiko-juridiko bakoitza —EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria— subjektu politiko gisa hartuz. Ezaugarri eta erritmo propioak dituzten hiru prozesu eratzaile aurreikusten ditu alderdi abertzaleak, eta honela dio: «Egungo sistema instituzionala hartzen dugu oinarri, logika para-instituzionalak alboratuz» (Sortu, 2016b: 24). *Herritarren botereztearen aldeko hautua eta jarduneko eremu politiko-juridikoak abiapuntutzat hartzea Goikoetxeak (2017) garatutako planteamenduetatik gertu dago*. Gainera, Espainiako eta Frantziako estatuak ezarritako administrazio-banaketa abiapuntutzat hartzea, historikoki ENAMek arbuiatu izan duena, Žižeken ikuspegiaren bidez aztertuz gero, ezarritako ordena onartzea dela ondoriozta daiteke. Ordea, gaur egungo ENAMek Laclaren estrategiatik edan, eta hiru eremu administratiboak demokratizazioa bultzatzeko eremu autonomo gisa kokatzen ditu, logika taktiko baten baitan.

Fase taktiko berri honek inoiz baino prozesu-izaera handiagoa du, ez baita negoziazio batzuen ondorio izango, herri-prozesu baten garapena baizik. Zera dio Sortuk (2016b: 34): «Herri gisa aitortuko gaituzten eta gure etorkizuna esparru guztietan libre eta demokratikoki erabakitzeko dugun eskubidea jasoko duten status juridiko-politiko berrien aldeko herri-ekimenak izango ditugu ardatz» [...] «Euskal Herrian demokratikoki hartutako erabakiak defendatuko dituen». Horrela, gizarte-mugimendu eta herri-mugimenduak bultzatuko ditu, eta horiek instituzioekin duten dialektika baliatu. Hori «tentsio sortzaile gisa» ulertuz, egungo erakundeen, eta oro har gizartearen demokratizazioa, logika komunitarioen sakontzea eta aurrerapen sozialak bultzatuko ditu (Sortu, 2016b: 49).

Zalantzarik gabe, *demokraziaren ulerkera demokrazia erradikalaren oso antzekoa da gaur egungo ENAMen*. *Batetik, helburu estrategikoetan guztiz atxikita* —sozialismoa demokraziaren errotzearen sinonimotzat hartzeraino— *duelako, eta, bestetik, fase taktiko gisa prozesu demokratizatzaile bat aldarrikatzen duelako*. Egungo erakundeen demokratizaziotik abiatzeak, prozesu-izaera aldarrikatzeak, demokrazia mota ezberdinen arteko uztartzeak, erabakitzeko eskubidearen aldeko hautuak, herritarren parte-hartzea bultzatzeko nahiak eta subjektu nagusitzat herritarrak —herri-sektore eta langile-klaseari eginiko aipamenekin— hartzeak erakusten duten moduan.

Bestetik, nazio hitzak presentzia urriagoa du aurreko hamarkadetan baino. Horrela, nazio-aitortza bilatzea baino gehiago, *Herri* aitortza ageri da. Era berean, *Herri* kontzeptua erabakitzeko eskubideari estuki lotuta dagoela aztertu dugu —nazioa ez da ezinbestekoa erabaki nahi duen herri batean (López, 2017)— eta erabakitzeko eskubidea da nagusi ponentzia hauetan (Sortu, 2016b: 34). Gainera, lehenago ikusi dugun hiru subjektu politikoen aitortzak Euskal Herria subjektu bakartzat hartzea ordezkatzen du.

Naziotasunarekin jarraituz, anzitasuna azpimarratzen da, eta «euskal nazioko kide sentitzeko motibo bat baino gehiago dagoela» adierazten da. Era berean, euskara euskal identitatearen ardatz nagusi gisa aitortzen da, baina esan

bezala, naziotasunaren aniztasuna defendatzen da (Sortu, 2016b: 17-18) eta independentziarekin bat egiteko *borondate anitzak* aldarrikatu (Sortu, 2016b: 40). Horrela, *artikulazio independentistan nazio-identitateaz gaindiko elementu ideologiko anitzak baliatu beharra azpimarratzen da*. Horrek Zabalo eta Odriozola (2017) edo Azurmendiren (2017) azterketekin bat egiten duela ikus dezakegu.

Azkenik, artikulazio independentistaren bidez garatu nahi den prozesuaren ezaugarritzean erabakitzeko eskubidearen eta prozedura demokratikoen bidez egitearen garrantzia nabarmentzen da. Eta gutxieneko eduki gisa nazio/herri onarpena eta erabakitzeko eskubidea hartuko dituzten proposamen eta dinamikak prozesuaren palankatatzotzen dira (Abian, 2015: 33). Historikoki negoziazio-prozesu baten bidez helduko litzatekeen agertoki taktikoa, izaeraz ez da asko aldatzen —gutxieneko demokratikoak dira ardatz—, baina formaz, demokrazia erradikalera gehiago hurbiltzen den prozesu-izaera hartzen du. Zentzu horretan, hurrengo adierazten du Sortuk (2016a: 12): «Sortuk ez du iraultza amaiera-gertakizun gisa begiztatzen, baizik eta prozesu askatzaile gisa».

7. Ondorioak

Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren oinarri ideologikoetan zein ildo politikoan demokrazia erradikalaren paradigmaten zantzuak nabarmenak dira gaur-gaurkoz, eta bereziki 1990eko hamarkadatik aurrera irabazi dute pisua. Eta beraz, lehenengo hipotesia onartuzat har dezakegu. Prozesu horretan, nazioarteko testuinguruak pisua izan du, ikus daitekeenez, sasoi historiko bakoitzean ENAMek nazioarteko prozesu askatzaileetatik edan baitu. 1980ko hamarkadan inperialismoaren aurkako borroka ardatz izatetik, 1990eko hamarkadan autodeterminazio-prozesuek pisua hartzera igaro zen. 2010eko hamarkadan, bereziki Abian eta Zohardia txostenetan, neoliberalismoaren eta demokrazia faltaren kontrako burujabetza- eta demokratizazio-prozesuak dira nazioarteari begirako ardatz zentralak. Horrenbestez, 1.1. hipotesia, nazioarteko joerek demokrazia erradikalaren barnerapenean eragina izatea hain zuzen ere, baieztatutzat joko dugu.

Esan bezala, garapen historiko zehatz batek ahalbidetu du gaur egungo ENAMen oinarri ideologikoetara heltzea. Pixkanaka-pixkanaka, eta eremu ezberdinetan erritmo ezberdinak izan arren, demokrazia erradikalaren paradigmatara egindako hurbilpena ikus dezakegu koadro honetan:


	HASI II. Biltzarra	Urrats Berri prozesua	Sorturen eratze-prozesua	Abian eztabaida eta Sorturen birfundazioa
Nazioarteko ardatz nagusia	Inperialismoa	Autodeterminazio- eskubidea	Neoliberalismoa- burujabetza talka	Neoliberalismoa- burujabetza talka
Proiektu politikoa	Euskal estatu sozialista	Sozialismo demokratikoa	Euskal estatu sozialista, feminista eta euskalduna	Euskal Sozialismoa
Fase taktikoa	KAS alternatiba	Alternatiba Demokratikoa	Gutxieneko demokratikoen markoa	Estrategia Independentista Eraldatzailea (prozesu demokratizatzailea)
Demokraziaren papera	Taktikoa	Taktikoa eta estrategikoa	Taktikoa eta estrategikoa	Taktikoa eta estrategikoa
Demokraziaren ulerkera	Marxista	Demokrazia mota ezberdinen arteko bateragarritasuna	Demokrazia mota ezberdinen arteko bateragarritasuna	Demokrazia erradikala
Borroka moldeak	Politikoak eta bortxazkoak	Politikoak eta bortxazkoak	Politikoak	Politikoak
Abertzaletasunaren sinbologiaren ardatza	Euskara	Euskara	Euskara	Borondate anitzeko abertzaletasun demokratikoa
Legitimitate nazionalista	Nazionala	Nazionala	Nazionala eta demokratikoa	Demokratikoa eta nazionala

Demokrazia erradikalaren paradigma barneratzeak desplazamenduak ekarri ditu ENAMen oinarri ideologiko historiko batzuetan. Besteak beste, *autodeterminazio-
eskubidea erdigunean egotetik, erabakitzeko eskubidea lehen planoan jartzera*. Alta, Lópezek (2017) plazaratzen duen *autodeterminazio-
eskubidearen eta erabakitzeko eskubidearen arteko uztargarritasuna defendatuz*.

Bigarren aldaketa nagusia, nazioaren eta haren baitan eraikitako identitate abertzalearen lausotzea da. Gaur egun ENAMen baitako nazionalismoaren erdigunean kokatu da demokrazia, Goikoetxeak (2017) edota Zabalo eta Odriozolak (2017) aztertu bezala. Horren eraginez, klase sozialaren aldagaiak ere pisua galdu du, eta kontrara, lurraldetasunak irabazi. Gauzak horrela, demokratizazioa ardatz duen *borondate anitzeko abertzaletasunak* aipatzen dira independentismoaren garapenerako gako gisa. Euskal nazioaren eta euskararen eredu sinbolikoak lehentasunezkoa izaten jarraitu du abertzaletasunaren sinbologian, baina ez dira ezinbesteko elementuak izango jadanik (Abian, 2015 eta Sortu, 2016). Beraz, *borondate anitzeko abertzaletasun demokratikoa da ENAMen gaur egungo abertzaletasunaren ulerkera*, euskararen pisu sinboliko handiarekin eta konnotazio aurrerakoiez osatua.

Alta, ikusi dugunez, aipatutako aldaketek ez dute independentziaren aldeko diskurtsoan Azurmendik (2017) aipatzen duen estatuaren nazio-legitimitatearen bazterketarik ekarri. Eta beraz, 2. eta 2.1. hipotesiak baieztatu ditzakegu. Gainera, eta etorkizunean ikertzeko eremua izan daitekeen arren, *legitimitate demokratikoa eta nazio-legitimitatea uztartu egingo direla pentsa daiteke*, beraz, ariketa berbera formulatuz identitate abertzalearen baitan. Nolabaiteko tentsio teoriko bat sortuz.

Gauzak horrela, demokrazia erradikalaren paradigma politikoa barneratu izana eta horrek ENAMen pentsamendu politikoan sortu dituen aldaketak aintzat hartuta, ezin daiteke esan aztertutako prozesuaren aurretiazko oinarri ezberdinak —nazioa eta autodeterminazio-eskubidea, marxismoa eta klase sozialen afera...— desagertu direnik. *ENAMen oinarri ideologiko historiko horien eta demokrazia erradikalaren arteko sintesi baten aurrean baikaude*, eta nolabaiteko tentsioan elkarrekin bizi dira paradigma politiko ezberdin horiek. Abian (2015) eta Zohardia (2016) ponentzietako kontzeptu eta ideien bidez honako grafikoan irudika daiteke aipatutako sintesia:



Finean, gaur egun ENAMek Euskal Sozialismoa —errotik demokratikoa izango dena, konfrontazio demokratikoa fase taktikotzat duena eta prozesu bidez garatuko dena— du helburu nagusitzat. Aipatutako borondate anitzeko abertzaletasun demokratikoa planteatuz, subjektutzat Euskal Herria eta euskal herritarrak identifikatuz eta une oro horien hitza —gaur egungo hiru erakunde-egituretatik abiatuz— oinarri hartuz. Eta esan bezala, planteamendu politiko honetara iristeko *sozialismoaren eta abertzaletasunaren arteko sintesi historikoa demokrazia erradikalaren paradigmarekin uztartu du*. Hiru ardatz horiek direlarik gaur egungo ENAMen planteamendu ideologiko, politiko eta estrategikoa hezurmamitzen dutenak.

Bibliografia

- Ansa Goicoechea, Elixabete (2018): «Txabi Etxebarrieta y la cultura política de la transición». *Erria: eraldaketarako aldizkari politikoa*, 2, 84-90.
- Aoiz Monreal, Floren (2017): «Laclau eta Euskal Herria, ortodoxia dogmatiko eta ihesaldi etsipenetatik haratago», *Hegemonia, artikulazioa eta populismoa: Laclauen ekarpenak eta Euskal Herria*, Iratzar Fundazioa, Donostia, 43-75.
- Apalategi Begiristain, Jokin (1985): *Los Vascos, de la autonomía a la independencia*, Txertoa, Donostia.
- Apaolaza Amenabar, Unai (2010): «Abertzaletasun esentzialistatik dialektikora: nazionalismo iraultzailea», *Lapiko Kritikoa*.
- , (2012): «Euskal naziotasuna: independentziarako estrategia bat», in A. Aizpuru, B. Altonaga, I. Galletebeitia eta A. Olariaga (koord.), *Euskal Herriko pentsamenduaren gida*, UEU, Euskal Herria, 91-104.
- Azkune Torres, Jon (2016): «Democracia, soberanía y populismo en la Unión Europea: la emergencia de la izquierda independentista escocesa», *Clivatge*, 4, 31-59.
- Azurmendi Arrue, Haritz (2017): «Naziogintzaren ataka berria. Estaturik gabeko naziogintza eta naziorik gabeko estatugintza», *Jakin aldizkaria*, 2017ko martxo-apirila, 31-57.
- Calle Collada, Angel (2011): «Democracia Radical. Entre vínculos y utopías», *Aproximaciones a la Democracia Radical*, 1-28.
- Etxebarria Respaldiza, Eki (2018): «Globalizazioa eta nazionalismoa. Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren kasua», *Uztaro*, 104, 61-84.
- Errejón Galván, Iñigo eta Mouffe Pantión, Chantal (2015): *Construir Pueblo: Hegemonía y radicalización de la democracia*, Icaria, Bartzelona.
- Euskaldunon Egunkaria (1997): «Milaka lagun manifestatu dira Donostian Alternatiba Demokratikoaren alde», 1997ko apirilaren 27a.
- Ezker Abertzalea (2010): *Zutik Euskal Herria*, Euskal Herria.
- Ezker Abertzalea (2015): *Euskal Herria zutik eta Abian*.
- Gascón Pérez, Lucas Alberto (2014): «Democracia radical, entre la crítica y el nihilismo: un abordaje de la propuesta desde el diálogo entre Ernesto Laclau y Slavoj Žižek», *Revista Mexicana de ciencias políticas y sociales*, 59.
- Goikoetxea Mentxaka, Jule (2017): *Demokraziaren pribatizazioa: Kapitalismo Globala, Europa eta Euskal Lurraldeak*, Elkar, Donostia.
- Herri Batasuna (1991): *Urrats Berri. Behin betiko dokumentuak, eztabaidan onartutako ekarpenak eta zuzenketak jasota (1., 2., eta 3. txostenak)*.
- Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailea (1983): *II. Biltzarrea / II. Congreso. Independentzia eta sozialismoaren bidean: desarrollar el partido, fortalecer el bloque KAS, avanzar con la unidad popular HB*.
- Krutwig Sagredo, Federico (1966): «Nacionalismo revolucionario», *Branka*, 1, 7-34.
- Laclau, Ernesto eta Mouffe Pantión, Chantal (1987): «Hegemonia y estrategia socialista: hacia una radicalización de la democracia», *Siglo XXI*, Madrid.
- Laclau, Ernesto (2005): *La razón populista*, Fondo de Cultura Económica de Argentina, Buenos Aires.
- López Hernández, Jaime (2018): «Derecho a decidir, soberanía y proceso constituyente», *Erria aldizkaria*, 1, 56-69.
- Máiz Suárez, Ramón (2016): «El Dios mortal. ¿Implica la globalización una progresiva desaparición de los estados?», *Araucaria. Revista Iberoamericana de Filosofía, Política y Humanidades*, 37, 21-43. Doi: 10.12795/araucaria.2017.i37.02
- Mouffe Pantión, Chantal (2015): *El retorno de lo político. Comunidad, ciudadanía, pluralismo, democracia radical*, Paidós, Bartzelona.

- Odriozola Irizar, Onintza (2016): *Erakunde bat baino gehiago: ETA herri mugimendu gisa (1958-1968)*, doktorego-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Odriozola Lizarribar, Joxe Manuel (2017): «Bi identitate eredu: nazionala eta etnikoa», *Nora goaz euskalduntasun honekin?*, Elkar, Donostia, 9-27.
- Olariaga Azkarate, Andoni (2017): «Arrazoi populista», *Hegemonia, artikulazioa eta populismoa: Laclaren ekarpenak eta Euskal Herria*, Iratzar Fundazioa, Donostia, 79-83.
- Olariaga Azkarate, Andoni (2018a): «Txabi Etxebarrieta y el 68 Vasco», in A. Olariaga eta I. Egaña, *Punto de partida de un ciclo histórico*, Iratzar Fundazioa, Donostia, 9-19.
- Olariaga Azkarate, Andoni (2018b): «Subiranotasuna eta artikulazioa: txanponetik poliedrora», *Erria Aldizkaria*, 2, 94-99.
- Sassen, Saskia (2010): *Territorio, autoridad y derechos de los ensamblajes medievales a los ensamblajes globales*, Katz Editores, Madril.
- Sassen, Saskia (2012): *Nuevas geopolíticas: territorio, autoridad y derechos*, Nova Era, Bartzelona.
- Sortu (2012): *Sortzaile: Sorturen eratze prozesua* (1. eta 2. txostenak).
- Sortu (2016): *Zohardia ponentzia, Sorturen birfundazio prozesua* (1. eta 2. txostenak).
- Tudela Aranda, José (2016): «El derecho a decidir y el principio democrático», *UNED, Teoría y realidad constitucional*, 37, 477-497.
- Álvarez Enparantza, José Luis «Txillardegi» (1966): «Hizkuntza eta Pentsakera», *Branka*, 1, 35-56.
- Quintela Montano, Ángel Luis(2016): *Agonismo y democracia radical en Chantal Mouffe*.
- Zelik, Raul (2017): *La Izquierda Abertzale acertó*, Txalaparta, Tafalla.
- Zubiaga Garate, Mario (2017): «Hegemonia eta erradikalizatzeko demokratikoa Euskal Herrian», *Hegemonia, artikulazioa eta populismoa: Laclaren ekarpenak eta Euskal Herria*, Iratzar Fundazioa, Donostia, 121-133.

